

AURREIRITZIAK ETA ESTEREOTIPOAK ETA NOLA ERAGITEN DUTEN ELKARBIZITZAN

« Bai tristea gure garaia! Errazagoa da atomo bat desegitea aurreiritzi bat baino».

Albert Einstein (1879 – 1955)

ZER DA AURREIRITZIA?, ETA ESTEREOTIPOA?

Aurreiritzia zera da...

Epai edo iritzia, normalean negatiboa, motiborik gabe eta behar den ezagutzarik gabe sortua. Talde bateko kideztat identifikatzen dugun pertsona batekiko jarrera negatiboa eta aurkakoa izatea esan nahi du, talde horretako partaide izate hutsagatik.

Pentsamoldea eta jarrera da, oro har negatiboa, pertsona edo norbanako batek beste baten edo talde baten aurrean duena, bere erreferentzia-taldetik kanpokotzat jotzen duelako; taldeetat ulertzen da eskualdea, nazioa, erlijioa, kultura, klase soziala, sexu-joera, lanbidea, etab.

Estereotipoa zera da...

Irudi mental oso sinplifikatua, xehetasun gutxikoa, ezaugarri batzuk partekatzen dituen jende multzo bati buruz. Bai positiboa eta bai negatiboa izan daiteke, nahiz eta normalean negatiboa den. Pertsona baten ezaugarriei buruz sozialki partekatutako uste multzoa izaten da, talde zehatz batek ustez duen bereizgarri jakin bat handitu egiten dutelarik.

Estereotipoak aurreiritzien antzeko ideiak dira. Estereotipatzea sinplifikatzean datza, ideia sinpleen multzo soil bat elkartzean, normalean beste batengandik hartuta.

Aurreiritziak eta estereotipoak nork bere egiteak “entzuten duzun lehenari jarraitzea” esan nahi du eta egiazkotzat jotzea, egiaztatu gabe edo informazio gehiago bilatu gabe.

AURREIRITZI-ESTEREOTIPO DIFERENTZIAK

Estereotipoak bi alderdi hauetan ezberdintzen dira aurreiritzietatik: **ideia-multzoa dira eta pertsona-taldeei egozten zaizkie.**

Aurreiritzia esperientzia zuzenik edo errealik gabeko epai edo balorazioa da, normalean negatiboa. Izaera negatiboko emozioa ere inplikatzeko du talde edo pertsona bati buruz. Indibiduala da, hau da, pertsona batena. Adibidez: edozein pertsona epaitzea ezagutu gabe. “Pertsona honek ez dit konfiantzarik sortzen, ijitoa baita”.

Estereotipoa oso irudi mental sinplifikatua da. Kolektiboa da. Ezin da pertsona bat estereotipatu, talde batek partekatutako irudia baita. Aurreiritzi baten zehaztapena da. Adibidez: “Ijitoak (guztiak, orokorrean) lapur hutsak dira”.

AURREIRITZI ETA ESTEREOTIPOEK ELKARBIZITZA SOZIALA BALDINTZATZEN DUTE

Aurreiritzi eta estereotipoek negatiboki eragin dezakete gizarte-taldeen arteko harremanetan, eta elkarbizitza zaildu.

Aurreiritziak eta estereotipoak **jarrera diskriminatzaileen oinarri** dira, eta eragin larria izan dezakete elkarbizitzan, beste gizaki batzuen aurka indarkeria eta eraso erabiltzeko arrazoi zentzugabe bihurtzeraino.

Estereotipoa eta aurreiritzia, joera pertsonal gisa, pertsona edo talde batenganako jokabide negatibo bihurtzen dira. Jokabide hauei (errealak eta ikus daitezkeenak) diskriminazioa deitzen zaie.

Diskriminazioak pertsonen tratu txarra ematea edota aukerak mugatzea esan nahi du, talde baten partaide izatea definitzen duten bereizgarriak izateagatik. Diskriminazioak indartu egiten du aurreiritzia. Era berean, aurreiritziak diskriminazioa sortu eta elikatu egiten du.

Beste gizarte-talde batzueganako jarrera negatiboek ondorio ugari dituzte pertsonen bizitzan, bai biktimenean, bai erasotzaileenean. Ondorio nagusietako bat aurreiritziaren diskriminazioa da.

Diskriminatutako pertsonentzat, era honetako jarrerak bazterketa eragiten dute eta gizataldeen arteko arrail sozialak areagotu egiten dituzte. Pertsona diskriminatuek, esate baterako, aukera gutxiago dute gizarte zerbitzu, hezkuntza-aukera edo sustapen profesionalez baliatzeko. Hauxe izan da, adibidez, emakume askoren egoera, eta arazo izaten jarraitzen du kultura tradizionalan. Ikuspuntu moraletik, aurreiritziaren biktima diren pertsona eta taldeenganako injustizia dira, izan ere, dakigun bezala, ezagutza eskasetan oinarritzen baitira.

Aurreiritziak dituzten subjektuei dagokienez, errealitatea hautemateko moduan eragiten dute, ikasteko moduan, buruan gordetzen den informazio-motan, etab. Horren guztiaren ondorioa da gizarte harremanetan muga bat egotea, itxikeria sortzen dute diskriminatuen ezaugarrien ezagutza jakin batzuekiko, gutxiespen jarrerak eragiten dituzte talde diskriminatuak osatzen dituzten pertsonetikiko; aurreiritziak indarkeria sortzera ere irits daitezke talde bateko kideekiko eta, era berean, topaketa bortitzak taldeen artean.

Aurreiritzi gutxiagoko pertsonak erraztasun handiagoa dute pertsona ezberdinekin harremanak egiteko eta lotura "osasuntsuagoak" izateko beste batzuekin; izan ere, honek harreman onak ahalbidetzen baititu besteen ezaugarriak aintzat hartu gabe, diferentzien gozamen handiagoa erraztuz uste eta balioen mailan, baita gai zailagoetan ere, hala nola, erlijioa edota politika.

Beste talde eta pertsona batzuen diskriminazioaz gain, estereotipo eta aurreiritziek izan ditzakete beste ondorio larri batzuk edo ez hain larriak gure eguneroko bizimoduan:

- Saihespena: taldea edo pertsona saihestea, ez hitz egitea, ikusi nahi ez izatea.
- Hitzezko gehiegikeria edo iraina: negatiboki hitz egitea taldeaz eta taldeari edota taldearekin identifikatzen dugun pertsonari.
- Indarkeria erabiltzea.
- Jazarpena: pertsona baten nortasuna ezeztatzea irainaren eta talde-indarkeriaren bidez.
- Hilketak edo genozidioa: pertsona edo gizatalde baten suntsiketa fisikoa.

ESTEREOTIPOEN ADIBIDE BATZUK

- **Etorkinak neurri gabe baliatzen dira gizarte laguntzez.**

Zer esaten da? Esaten da etorkinek bertakoek baino laguntza publiko gehiago eskuratzen dituztela, eta arreta gehiago bereganatzen dutela etorkinak izateagatik.

Errealitatea zera da... Nazionalitatea ez da gizarte-laguntzetarako aukera erabakitzen duen faktorea. Jasoko duen pertsonaren edo familiaren egoeran oinarritutako irizpideek arautzen dituzte. Etorkinek ekarpen gehiago egiten diote Ongizate Estatuari jasotzen dutena baino, ez ekonomia arloan soilik, baita gizarte, demografia eta kultura arloan ere. Gainera, gizarte-zerbitzuetarako sarbidea estatuko eta autonomiako araudietan jasotako eskubidea da, baita Europakoetan ere.

- **Etorkinek lana kentzen diete bertakoei.**

Zer esaten da? Ez da arraroa entzutea etorkinak langabeziaren erantzule direla. Esaten da bertako biztanleen arteko langabezia “lana kentzen digutelako” dela, krisialdian areagotu egin den komentarioa.

Errealitatea zera da... Etorkinak ez dira ari bertakoak galtzen ari diren lanpostuak betetzen. Eta langabeziak gehien erasandako sektoreetan, bai bertakoen eta bai atzerrikoen lanpostuak galtzen dira. Gainera, langile etorkinei gehiago ari zaie eragiten krisia eta langabezia, bertako biztanleei baino. Paradoxikoki, enpresa-ekintzailetzaren zati handi bat etorkinek bultzatzen dute.

Estereotipoen beste adibide batzuk:

- Gaur egungo nerabeek ez dute baliorik, paso egiten dute, alfer hutsak dira...
- Gizonek ez dute negarrik egiten.
- Ilehoriak tuntunak dira.
- Euskaldunak terroristak dira.
- Espainiarrak parrandazaleegiak dira eta ez oso langileak.
- Katalanak zuhur hutsak dira.
- Andaluzak alfer hutsak dira.
- Gayak promiskuoak dira.
- Ijitoak lapur hutsak dira.
- Errumaniarrak banda kriminal antolatutako kideak dira.
- Musulmanak terrorista yihadistak dira.
- Politikoak ustelkeriak jota daude.